

ELKAREKIN

DIRU-SARRERA ITURRIAK

Proiektua udalek kontratatzen dabezan zerbitzuei esker ordaintzen da batez ere. Horretaz gain, erabiltzaileek ekarpen sinboliko bat egingo dabe. Diru-laguntza publiko zein pribatuak ere jasoko dira.

Lehenengo urtean, hilean hogeitailer antolatzea herri bakoitzean aurreikusten dogu. Tailer bakoitzaren prezioa 200€ izango da eta Euskal Herriko hiru udalek kontratatzea aurreikusten dogu.(15.000 eta 40.000 biztanle arteko udal ertainak, adibidez: Durango, Galdakao eta Laudio) Aurrerago, udalerri handiagoekin egingo dogu lan. Horretaz gain, 50 erabiltzaile tailer bakoitzeko aurreikusten doguz lehenengo urtean. Bakoitzari 2€ kobratuz tailerreko. Azkenik, diru laguntza publikoak eta pribatuak eskatuko doguz 10.000€ inguru lortzea estimatuz.

Euskal Herrian eragin sozial handia daben proiektuak, gurea moduan, hainbat diru-laguntza aukera dabez eskuragarri. Adibidez: Ekintzailetzarako eta Hasierako Inbertsioetarako laguntzak (Lanbide), Gizarte Eragina eta Bakardadea (Gizarte Politikak), Fundazioaren Gizarte Deialdiak (La Caixa)...

Iturria	Kopurua (Urtean)	Prezioa(Tailer bakoitzeko)	Guztira (urtean)
Udalek	720/Tailer	200€	144.000€
Erabiltzaileak	36.000	2€	72.000€
Diru-laguntzak	—	—	10.000€
Diru Sarrera TOTALA			226.000€